







H- 83505
F- 88625

A-✓
39985

BUÑUNTZIYA





BUÑUNTZIYA

IRUDIGILEAK

Mañaxi
Xefeina
Talo
Joxe-Joakin
Koxme

Iruditegia eñi txikiko etxe bateko gela nagusia. Atzean sañerako atea. Ezker-
eskuitan ateak. Atzeko orman asara (cómoda) bat, jostaluz eta antzezki betea. Al-
kiak batean eta bestean zabalduak. Alkietako bat txiki-xamaña.

I

MAÑAXI ta KOXME

(Mañaxi etxeandria da. Berogeñi ta zortzi urte ditu; arpegi zoñotza ta izakera
zoñotzagoa. Betañreko aundi batzuek begietan dauzka, ta alki txikian exerita braka
batzueñ arabakiak jartzen ari da. Koxme, bere aldamenean zutik dago; ogeñi ta iru
urteko mutil gaztiñ da).

Kox. ¿Beaz ezetzian zaude?

Maña. Ezetzian irauten degu.

Kox. Zure alaba nik maite detanarekin...

Maña. Emazteaz jabetzeko ez da aski naitasuna.

Kox. Bere begietatik ikusiko nuke nik.

Maña. Jan ere bere abotik naiko zenuke noski; ta ori da guk inñola
ere ezin eraman deguna.



- Kox. Mañaxi...
- MAÑA. Zure buruentsako lain ezin sortu dezu, ¿ta emaztia biar dezula?
- Kox. Nere beařak nere lanarekin osatzen ditudala eři guzia jakinēn gañian dago.
- MAÑA. Ez dakit ba; gurasuak utzitako ontasunetatik ez det uste asko-askorik gelditzen zaizunik.
- Kox. Buřuntzi bat gelditzen zait.
- MAÑA. Ori da. Ta zuk orain biarko zenuke noski, nere alabak olaxkuak eramatia zure buřuntzi ořetan eřetzeko.
- Kox. Ez dizut nik olaxkorik eskatzen. Alaba bakařik eskatu det.
- MAÑA. Ez dezu beintzat egakirik, lumarik ere izango.
- Kox. Ez ta bear ere. Ondo dakizu nere gurasuak utzitako ontasunetatik eten beařian arkitu banaiz, luzaroan gaxo egon naizelako izan dala. Badakizu, osasunez ondo izan nitzan bitartian gurasonkařia zuzen gordetzen nuela; sendatu naizenetik lanaren bitartez auřera ateratzen naizela. Badakizu...
- MAÑA. Nik dakitana da, buřuntzi bat besterik ez dezula. Ta etzait iduritzen neskaxa bat eskatzeko, buřuntzi bat naikua izan litekenik.
- Kox. Ez det buřuntzia bakařik eskeintzen; biotz bat ere eskeintzen det.
- MAÑA. Sartu zazu ba buřuntzian, ta ia nolako jakia sortzen dezun sendi, pamili bat mantentzeko.
- Kox. Zuk bai, Mañaxi, buřuntzia sartzen didazula zure esaera zořotzakin.
- MAÑA. Egia beti zořotza izan oi da.
- Kox. Len esaten zenidana ere egiya izango zan noski, baña ez zuen ořelako zořoztasunik. Orduan zerořek laguntzen zenidan zure alabarekin nerabilzkien asmoetan.
- MAÑA. Orduan buřuntziya baño zer edo zer geyago bazenuelako.
- Kox. ¿Baña, zure alaba, nerekin edo nere ontasunakin ezkondu nai zenuen?
- MAÑA. Zurekin, zure gurasuak utzitako ontasunen jabe ziñan bitartian. Baña, orain buřuntzi bat besterik ez dezu ta...
- Kox. Egiya. Buřuntzi bat besterik ez. Nere amak, ez dakit zergatik, baña, buřuntzi oři zale aundiya ziyon. Auřekoen auřekoak utzitakoa zala esan oi zuen. Ez du beaz nolanaikoa izan

- biar. Baña, dana dala, egiya aitortu dizut: ez det besterik ezer.
- MAÑA. Auñekuak edo atzekuak utziya, ori beti buñuntziya; ta ez daukat nik alaba buñuntzi batekin ezkontzeko.
- KOX. Buñuntziarekin, ez; nerekin ezkontzia eskatu dizut.
- MAÑA. Berdin zait; zuri begiratzen dizut, eta ez dizut ikusten... buñuntzi bat besterik.
- KOX. Nai ez dezulako: garbi azaltzen dizkizut nere zintzotasuna, nere lanerako grina, zure alabaganako naitasuna...
- MAÑA. Ba, ba, ba... Alperikako itzak. Uskeriyak. Oyek guziyak eltzeari koipe gutxi emango diote.
- KOX. Eltzeak ez du koipea bakañik bear; mamiya ere bear du. Senar-emazteen arteko mamiya, beren zintzotasuna ta al-karganako maitasuna da.
- MAÑA. Bai; ta mami ori beñiz ametsetako lukainka besterik ez.
- KOX. ¿Lukainka deritzaizu?
- MAÑA. Eltzeak ez du koipea bakañik bearko, baña, esaera zañak dion bezela: «nun zopa, an salda».
- KOX. Ikusten det zuretzat ez dala koipia, lukainka, zopa ta salda besterik.
- MAÑA. Badakizu: santu guztiyak oliyokoyak; eta santuak oliyua bezela guk ere bizikaia biar.
- KOX. ¿Eta, uste dezu nere lanarekin ez detala sortuko nere emazteak biar duen bizikaia?
- MAÑA. Ori, asmo bat, uste bat besterik ez da. Eta asmo ta usteakin ez degu ezer egiten. Zuk, ezkontzarako, gauza bat bakaña dakarzu: buñuntzi bat. Beaz, zu, ez zera nere alabaren malan jartzen.
- KOX. ¿Eta len, bai?
- MAÑA. Len, bai. Baña, orain, zu jetxi egin zera, ta nere alaba beñiz, goyen, zuk ezin atxitu dezun goitasunean gelditu da. Beaz, zuk, beragoko andregai bat arkitu bear dezu; nere alabak goragoko senargai bat. Bakoitzak bere malan.
- KOX. ¿Orduan, len esandako guziya, lengo eskeñiak, lengo agintzak alperikakoak dira?
- MAÑA. Alper-alperikakoak. Malaz aldatu zerate, beaz itzaz eta eskeñiaz ere aldatu bear dezute. Gañerako artu-emanetan gertatzen dan bezela. Txerri batekin tratua egiten dezu, baña pi-

xatzeakoan uste baño gutxiago pixatzen badu, esan baño gutxiago ere ordaintzen diozu.

KOX. ¿Baña, zuk, ezkontza txefi-tratua dala uste al dezu?

MAÑA. Anima salbo, txefi-tratu jator-jatoía.

II

LENGUAK eta TALO

(Talo, 55 bat urteko baseitar kankalu bat da. Oso zarpala. Laguna mauskatu gabe ez daki itzegiten. Atzean zalaparta dariyola oju egiten du).

TALO. ¿Koxme emen al da? (Atzeko atetik sartuaz). ¡Banekiyeñ nik! Ona emen bera. Ta baita Mañaxi zaía ere, oitu bezela brakak magalian, baña jostoratzarekin brakai baño sui-gayari jostura geyago egiñaz. Ez dizu zuri iges egingo ez. ¡Afiaye pola! (Mañaxi mauskatzen du. Au oso asafetzen da).

MAÑ. ¿Geldirik egongo al zera? ¡Kaiku, kirtena! Jostoratzarekin zuri egingo dizut nik zaíztada edeía geldirik ez bazaude.

TALO. (Koxme mauskatuaz). Ire bila etori nak. Beriala, bere beriala juateko. Alkarekin juan biar diagu.

KOX. Utzi nazazu pakian.

TALO. (Mañaxi'ri). ¿Ikusten? Zure ondotik ez du alde egin nai. ¿Zer tirakiloí dezu mingain ortan?

MAÑA. Utikan, alproja alena.

TALO. Senaía bezela, sui-gaya ere oso menpetu dezu. Zure atzapafetan erortzen dan gizasemea, egoan egiteko kemenik gabe uzten dezu. ¡Au katramilosa, au!

MAÑA. Zaude ixilik, astu ori. Talo izena, ta Talo izana. (Mañaxi altxatzen da).

TALO. (Koxme'ri). Beriala juan biar diagu. Prantzez eo ingeles, eo mutur goíi oyetako bat zai daukak.

KOX. Nik ez det oyekin zer ikusirik.

TALO. Ez, noski; bazekiagu ik Mañaxi'rekin dekala zer-ikusiya... (Mañaxi'ri) ta Mañaxi zapelaitz onek auka bere atzapafetan luma gabeko txoriya bezela estututa.

MAÑA. Zuaz nere begiyen aúfetik.

TALO. Onekin juan biar det ordia.

- MAÑA. Zuazte ba biyok eta pakia emazute.
TALO. Ori da pulamentuz jarduntzia. Bai; zu beti emakume mamuxel eta zirikituna.
MAÑA. ¡Astua!
TALO. (Koxme'ri). Entzun dek. Beriala juan biar diagu.
Kox. Ez detala ayekin ezer ere biar.
TALO. Ayek bai ordia irekin.
Kox. Nik, ez.
TALO. Iregana etortziagatik, nik ezer esan gabe ¡kaska! pexta bat eman ziake eta, ia.
Kox. Gorde bada.
TALO. Noski; baña irekin juan biar diat ordia (Mañaxi'ri). Nerekin juan biar du-ta.
MAÑA. (Koxme'ri). Eraman zazu emendik euli mando au.
TALO. ¡Bai, ba! Pexta bat eman ziake eta; ¡kaska geo!
Kox. Juan biar bada juango naiz; baña, alde egin baño len, zure azkeneko itza entzun nai nuke.
MAÑA. Nere azkeneko itza badakizu: bakoitza bere malan; ta bat jexten danean, bere asmoetan ere jetxi egin bear du.
Kox. Eta igotzen danian, igo...
MAÑA. Bai, noski.
Kox. Ondo da. (Atzera juanaz). Beste bat arte.
TALO. (Mañaxi mafuskatuaz). Orain ere zu, beti bezelako mazuztxoi ta txiripixtiña.
MAÑA. Utikan, asto nardagaíya.
TALO. (Atzeko atetik). ¡Pilinpustrera!

(Koxme ta Talo atzeko atetik juaten dira).

III

MAÑAXI ta XEFEINA

- MAÑA. ¡Gizona órén astua izatia! Lau ankekuak badira ori baño zentzu gezagokuak. Nere onetatik atera nau.
XEFE. (Mañaxi'ren alaba da. Ogeita bi-iru urteko neskatxa gaztia. Oso txotila dirudi. Moja-itxura zerbait ere badu, baña, mutil gazte gogokua aukeratu

- ezkero gogotik artuko lukena. Eskuiko lenengo atetik sartzen da). Ama?
¿bakarik al dago?
- MAÑA. Ez naiz nai bezin laster bakarrik gelditu. ¿Ez, orixe! Ez det berialakoan biali.
- XEFE. ¿Koxme?
- MAÑA. Koxme bat, bai; ta beste akulamendi zaia, Talo, asto kirten ori, bestia. (Gogoratu utsarekin sutan jartzen naiz).
- XEFE. ¿Koxme biali du beaz?
- MAÑA. Biali, bai; etxe ontan zer eginik ez duelako.
- XEFE. Ora; nerekin ezkondu biar zuela ta...
- MAÑA. Ez da ba zurekin ezkonduko.
- XEFE. ¿Zergatik, ordia?
- MAÑA. Nik nai ez detalako.
- XEFE. Moja juango naiz orduan.
- MAÑA. ¿E?
- XEFE. Moja juango naiz, bai; moja.
- MAÑA. Nik nai ez badet, ez zera juango ez moja ta ez praile.
- XEFE. ¿Zer egin biar det orduan?
- MAÑA. ¿Zer egin biar dezun?... (Len josten ari zan brakak erakutsiaz) Braka abei arabaki abek jañi. Senaia izaten dezunerako braka zaiaak tajutzen jakitia ondo etoriko zaizu.
- XEFE. ¿Baia, moja juaten banaiz?
- MAÑA. Moja juaten bazera, brakak tajutzen ez dezu noski lanik izango, ta kokotzeko bixakak kentzen ikasi biarko dezu.
- XEFE. Nik Kosme nai nuen.
- MAÑA. Ez dezu ba Koxmeik izango.
- XEFE. Orduan moja juango naiz.
- MAÑA. Orduan nik agintzen dizudana egingo dezu, ta orain ere bai; ta beriketa gutxirekin braka oyek tajutu, moja juan baño len lenbiziko astinaldiya artu nai ez badezu.
- XEFE. Moja juango naiz bada...
- MAÑA. Moja, bai. Zu Koxme'rekin juango zinake moja; baia emen-txe gelditu biar dezu aitaren braka zaiaak tajutzen.
- XEFE. Ez naiz bada geldituko.
- MAÑA. Beriketa gutxi gero neri. Braka oyek tajutu beriz esan baño len.
- XEFE. (Exeri ta brakak artuaz). Moja juango naiz bada.
- MAÑA. Ori, ikusiko degu. (Ezkerreko atetik juaten da).

IV

XEFEINA. Beriala JOXE JOAKIN. Azkenean MAÑAXI

- XEFE. Ikusiko degu, ikusiko degu... Braka zañak ikusiko ditugu emen; besteriz, ez. Len Koxme'rekin ezkondu biar nuela, ta pozez txoratzten jañi, ta orain, oñ, senargai gaztia kendu, ta bere orde z braka zañak eman. ¡Nik Kosme maite nuena-rekin! Ez, ba: moja juango naiz. Koxme zenbat maite detan oñetan ezagutuko dute.
- Jo-Jo. (Xefeina'ren aita da. Irurogei bat urteko etxe-gizon jatoñ. Bere burua legoi egin nai luke. baña uxu bat besterik ez da. Beti asañe-itxuran dabil, bañan bere asañak itxura besterik ez dira. Eskuiko bigañen atetik sartzen da, oitu bezela asañe-itxuran). Orain ere txamañen sakele-tik belartoxa ta suañiya eraman dizkidate. ¡Mila deabru! Zein dan baneki txiki-txiki egingo nuke.
- XEFE. Ez naiz ba ni izan.
- Jo-Jo. Ez; katua izango zan. Dana dala, oñeatik, añapatzen detan egunian, egun goñiya dauka. Beti nere zarpa zañetan ibili biar zer somatzen ote duten. Bat edo bati lepua biyuñitzeko zoratzten nago.
- XEFE. Ez naizela ni izan.
- Jo-Jo. (Gero ta sutsuago). Ez nazazula nagon baño geyago sutu-arazi, ezegiteko bat egiteko zoriyan nagota.
- XEFE. Baña, ni...
- Jo-Jo. Baña zu, edo añayoz jositako txepeleta dala, atzapañetan txetu, apurtu arte ez daukat onik.
- XEFE. (Bat batetan gogoratuaz). ¡A! Ama izango zan.
- Jo-Jo. (Apalduaz). ¿Ama?
- XEFE. Bai; ama izango zan. Txamaña garbitzen ikusi det, eta sa-kelak lenbizi garbituko zituen.
- Jo-Jo. (Oso apal) Ama izan bada...
- XEFE. Ama izan dala ziur nago; brakak tajutzeko ere emen utzi dizkit.
- Jo-Jo. ¡A, bai! Nere braka zañak.
- XEFE. Braka zañak eman, ta senargai gaztia kendu.
- Jo-Jo. ¿Nola?

- XEFE. Xoxme ez dala nerekin ezkonduko.
- Jo-Jo. (Añare biziyan). ¿Ez dala ezkonduko? Mila deabrukin ezkondu biarko du.
- XEFE. Mila deabrukin ezkonduko da; baña nerekin. ez.
- Jo-Jo. Zurekin ezkondu biarko du ba: bestela, mutura bañengo aldera jirako diyot. Añayoz jositako ume petrala. ¿Orain ez dala ezkonduko?
- XEFE. Ez du arek ofelakorik esan.
- Jo-Jo. Esan duenak esan duela, zurekin ezkontzen ez bada, atzaparetan zenbat beatz dauzkatan sudurarekin zenbatu biarko ditu.
- XEFE. Baña, Koxme'k...
- Jo-Jo. Ez zaitia orain aren alde atera, prejitzen jafi nazu-ta. Len artaratu, ta orain bere itza jan. ¡Mila deabru!
- XEFE. Ez du arek ezer jan.
- Jo-Jo. Ematen diyotan begiondokoarekin, nik aterako dizkiot geyago jateko goguak. ¡Brokoliyo txepela!
- XEFE. Baña, ura...
- Jo-Jo. (Oso sutu). Ura ta zu, biyak, nere atzaparetan apurtuko zaituztet. ¡Irakiten jafi nazute, añayoz josi oyek!
- XEFE. Xoxme'k ez du ezer esan.
- Jo-Jo. Ezta biar ere.
- XEFE. Amak esan du, amak...
- Jo-Jo. (Apalduaz). ¿Amak?
- XEFE. Bai; amak esan du. Aixtiyan esan dit.
- Jo-Jo. (Oso apal). Amak esan badu...
- XEFE. Eta ni ez naiz orenbesterekin geldituko; ta moja juango naiz.
- Jo-Jo. Ni ere juango nitzake oraintxe, zuen tartetik iges egiteagatik.
- XEFE. Moja juango naiz, bai, moja.
- Jo-Jo. Nire bai.
- MAÑA. (Ezkefeko atetik sartuaz). ¿Zer da? ¿Orain ere moja-tratu ari al zerate? ¡A zer bi bildu zeraten!
- Jo-Jo. Ni ez. Ni ez naiz moja juango.
- MAÑA. Noski.
- Jo-Jo. Baña, Koxme'k atzera egiten badu, ¡mila deabru! Koxme berá moja sartu-aziko det.
- MAÑA. Zuk ez dezu Koxme'rekin zer ikusirik.

- Jo-Jo. Ez, ba. Baña nere alabari para ta iseka egin biar badiyo, ematen diyodan belafiondokoarekin, artoalia apurtzen dan bezela nere atzapafetan apurtuko det axoliyo, gatzil ori. ¡Irakiten jañi nau oraintxe!
- MAÑA. Astokeririk esan gabe, ixilik zaude. Koxme neronek biali det.
- XEFE. Bai; ta ni moja juango naiz.
- Jo-Jo. Zuk biali dezu, bai noski, ta ondo egin dezu. Baña nik ez nuen bialiko ordia. Nik emen bertan zapaldu, puñukatu, txetuko nuen. Orain daukadan amoruarekin... Ez egiteko bat egiteko zoriyan nago.
- XEFE. Nire bai.
- MAÑA. Zu, bai; nere aginduak ez egiteko zoriyan egongo zera noski. Ikusi naiko nuke braka oyek nola dauden.
- XEFE. Puñukatuak. Ni nere asmoetan bezela.
- MAÑA. Baliteke. Baña nik tajutuko ditut zure asmuak; eta brakak ere nik tajutu biarko ditut noski, gauza zuzenik ez zenuen egingo-ta. (Brakak Xefcina'ri kendu ta ikusiaz). ¡Ikusten! ¿Au al da brakak tajutzeko itxura? Ta, gero, ezkondu egin biar dezula, esango dezu. ¡Ezkondu!
- XEFE. Nik Koxme'rekin ezkondu nai nuen.
- MAÑA. Ez zera bada Koxme'rekin ezkunduko.
- Jo-Jo. ¿Koxme'rekin? ¡Para ta iseka egin ondorian! Ez genuke besterik biar. Lenago biyak nere atzapafetan puñukatuko zaitutzet. ¡Eskalu ziztrin oyek!
- MAÑA. Au ezkunduko da nik nai detanarekin.
- Jo-Jo. Bai, noski; zuk nai dezunarekin ezkondu biarko du. Baña, ez ordia Koxme zirtzil, petral oñekin.
- MAÑA. Nik nai badet Koxme'rekin ezkondu biarko du bada.
- Jo-Jo. Zuk nai badezu, bai noski. ¡Ori da ba nik esaten detana! Baña Koxme, arlote oñek egin digunarekin... ¡Mila deabru! ¡Atzapafetan bancuka!
- MAÑA. Añek ez duela ezer ere egin.
- Jo-Jo. Obere badu. Estiak aterata ez da ordaintzen ergel alen ori.
- XEFE. Koxme'rekin ez banaiz ezkontzen, moja juango naiz bada.
- Jo-Jo. Ez zera bada moja juango. Lenago lepua biyurituko dizut. ¡Mila deabru!
- MAÑA. Nik nai badet moja juango da bada.

- Jo-Jo. Zuk nai badezu, bai noski. Baña ez ordia berak nai duela-ko. Ikusi dezu nola lotsagabetu dan arayoz jositako ume zirtzil au.
- MAÑA. Ikusi det, eta nik dakit zer egin biar detan. ¡Utzi nazazu neri!
- Jo-Jo. Zuri bai noski, utziko dizut; baña, zorigaiztoko ume petral oni...
- XEFE. Moja juango naiz bada.
- Jo-Jo. Ez zera juango.
- MAÑA. Juango da bada, nik nai badet. ¡Zer da beriz gizon zalapartari au!
- Jo-Jo. Prejitzeko zoriyan jari nazute-ta.
- MAÑA. Ez dezu zuk prejitzeko su askorik biar.
- XEFE. Juango naiz bada.
- MAÑA. (Xefeina eskuiko lenengo ate-aldera bultziaz). ¡Beriz? Emendik bai, aidian, juan biar dezula, ta orain bertan.
- Jo-Jo. (Xefeina'rengana juanaz). Tximistak egiten gero; nik oso puñukatu baño len.
- MAÑA. (Joxe Joakin'i ezker aldera bultziaz). Zu, atzera; zuk ez dezu zer esanikan.
- XEFE. (Mañaxi'rengana alderatuaz). Moja juango naiz bada. (Irurak len bezela egiten dute beñero).
- MAÑA. Nere begiyen aurretik juango zera. Ta azkar gero.
- Jo-Jo. Nik ematen diyodan kankarekoarekin egan juan biarko du.
- MAÑA. Esan dizut geldirik egoteko gure tartian sartu gabe.
- XEFE. Moja, bai; moja juango naiz.
- MAÑA. Bañenara juango zera oraintxe, ta nik jakingo det zer egin. (Eskuiko lenengo gelan Xefeina sartzan du, ta atia itxi, ta atiarik bizkara emanaz gelditzen da, zaitzen bezela. Joxe Joakin asafe biziyan gelan sartu nairik dabil, ta Mañaxi'k esaten dio) Ta zu, geldirik.
- Jo-Jo. Utzi nazazu sartzan. txiki-txiki egin dezadan neska zirtzil ori.
- MAÑA. Geldirik egoteko, esan dizut.
- Jo-Jo. Ematen diyodan kankarekoarekin, sudura zapaldu, txetu, puñukatu... (Au esaten duen bitartean Joxe Joakin'ek besoa altxatzen du Mañaxi jotzera balijoa bezela. Une onetan, Talo atzeko atean azaltzen da).

V

MAÑAXI, JOXE JOAKIN eta TALO

- TALO. (Atzeko atean azalduaz). ¡Ez diyokala Mañaxi'ri bufukan egiten!
- MAÑA. (Auxe biar genuen oraintxe).
- JO-JO. Ez nazakala nagon baño geyo sutu, eriyotz bat egiten ikusi nai ez banak.
- TALO. ¿Ik? ¡Ez zioz toki txarrian! Ago, ago; emaztiak jaříko au i laxter arkumia bezela *¡be! ¡be!* eginaz. ¡Ez al zekiau ba, oso menpetua aukala!
- JO-JO. (Talo'rengana juan eta ukabila altxiaz). Nere atzaparetan txikitu-ko at.
- TALO. (Parez eta Joxe Joakin'i arpegia maruzkatuaz). Ago ixilik. Etxe on-tan brakak ire emaztiak dituela bazekiau-ta.
- JO-JO. (Talo'rengandik aldendu ta ezkerian exeriaz). Ezegiteko bat ez egi-teagatik uzten diat.
- TALO. Ori banekikan. Ik zalaparta asko atera; baña, azkenian, ire emaztiak kukuřuku egin. Etxe ontako legia orixe dek. ¡Ez al zekiau ba!
- MAÑA. Emen jakin biar deguna da, baztařak nastutzeraz zergatik etoři zeran beriz etxe onetara.
- TALO. Zuei albiste bat emateagatik.
- MAÑA. Ez degu zure albisteik jakin nai.
- TALO. Ez dezu ori esango jakiten dezunian. Zuek asko poztuko zaituzten albiste bat da (Mañaxi'rengana juan eta maruzkatuaz). Bai, makařoxina, bai.
- MAÑA. Zuaz emendik, agure zarpala.
- TALO. Albiste ematian beriala juango naiz.
- JO-JO. Esan bear dekana esan zak ba laster, ta ua emendik tximis-tak egiten, amořu biziyan niok eta.
- TALO. Ire amořuak ez niotek batere kezkatzen. ¿Ez al zekiau ba, i egabera aizela?
- JO-JO. Egabera edo egagora, esan zak azkar, esan biar badek.
- MAÑA. Eta, alde emendik; ez gaude zure astokeriyak entzuteko-ta.
- TALO. Beriala esango dizutet bada. (Joxe Joakin'engana alderatu ta ma-řuzkatuaz). ¿Badakik?... Koxme, e...

- Jo-Jo. (Bat batetan oso asare altxiaz). ¿Koxme'ren tratuakin al ator onera? ¡Nere atzaparetan bancuka nai nitek, mila puska egiteko!
- MAÑA. Kosme'k etxe ontakuak egin ditu; ta ez degu here beñirik batere jakin nai.
- TALO. Nik dakartan beñiya, bai ordia.
- MAÑA. Ezta ere.
- Jo-Jo. (Exeriaz). ¿Zer da ba?
- TALO. (Joxe Joakin'engana juan eta mañuzkatuaz). Badakik, e... Koxme'k buñuntzi bat zikan.
- Jo-Jo. Bazekiat.
- TALO. Buñuntzi bat, ¿e?
- Jo-Jo. Bai; guziya bazekiat.
- TALO. (Joxe Joakin'engandik aldenduaz). Ez; ¿zer jakin biar dek! Ik ez dakik ezer. (Mañaxi'rengatik eta beregana juanaz). Onek zekik.
- MAÑA. Or esanta, nik entzungo det. Ez zatozela onera eulimando ori.
- TALO. Badakizu: Koxme'k buñuntzi bat zuen.
- MAÑA. Bai; buñuntzi bat besterik ez.
- TALO. ¿Zenbat buñuntzi nai zenuen ba izatia? ¿Buñuntziak, arto aliak dirala uste al dezu, edo zer?
- MAÑA. Zer esan detan, badakit.
- TALO. Bada, buñuntzi ori, juan dan iganderako Tipulax-eneko ardandegikoai eman ziyen. Badakizute; emengo sagasti zaleak afariya zuten juan dan igandian; ta, arkumia éretzeko. ¡Mutilak! ¡Koipe ederik botatzen zuen!
- Jo-Jo. Koipia utzi ta mamiya biar diagu emen.
- TALO. Bai nik ere, mamiya nayago nikan. Buñuntziyan zegola kosk egiteko egon nindukan.
- MAÑA. ¿Baña, astokeri oyek esatera etoñi al zera onera?
- TALO. Ez andria; ez naiz ofetara etoñi.
- Jo-Jo. Esan zak bada, esan biar dekana.
- TALO. Esango dizutet. Buñuntziya, zilaña bezela garbi-garbi egin, eta Koxme'ri emateko, ardandegiko txoko batian onela zeukaten. (Buñuntziya eskuan balerama bezela eskuiko ormara juanaz eta an uzteko itxura egiñaz. Mañaxi'ren aldemenetik igarotzeakoan, onek ikara antza egiten du. Talo erdira biurtzen da). Gu ardandegiyan geunden.

- MAÑA. Zu, jakiña da. ¡Non egongo ziñan ba bestela!
- TALO. Antxen negon ba, txiki erdi baten kondañai txurüt egin edo ez egin... (Atzeko atera juan eta andik itzegiñaz) eta ontan, prantzés eo ingeles eo mutur-gofi oyetako bat ateetan azaldu zan. Ez zuen agertzia besterik egin... Beriala buñuntzia ikusi, ta danba, danba, danba... (Prantzesaren itxura egiñaz, Mañaxiri alderatzen zaio. Onek, beregana datoñelakoan, kañaxi egiten du).
- MAÑA. ¡E! ¡Geldirik emen!
- TALO. Prantzesa zijoala onela.
- MAÑA. Prantzesa juango zan; baña, zu, ez zaitut nere ondoan ikusi nai. (Lasterka ezkeñera joan eta josteko alkiaren atzian gelditzen da).
- TALO. ¿Senaña auñian dagolako al da?
- MAÑA. Atzian badago ere berdin zait.
- TALO. Zuri bai noski. Zu beti nagusi izango zera-ta. ¡Txipiritona!
- JO-JO. Buka zak, bukatu biar badek.
- TALO. Bai; orain bukatuko diat. (Buñuntzia uzteko itxura egin duen ormaru juan eta eskuetan artzen balu bezela). Artu zuen buñuntziya eskuetan, eta... ¡A! ¡O!... Berari begira abua zabalik gelditu zan.
- MAÑA. Ez zuen zeri begiratu aundirik.
- TALO. Zu izan bazindu, ez zait iduritzen geyago begiratuko zizunik.
- MAÑA. Ezta biar ere.
- TALO. Bekuaz gora, goikuaz bera, alde guzietara erabili zuen. Begiyak bere artan josi nai zituen. ¡Ezin ordia! ¡Suduñarekin, kaska, jotzen! Izan ere, kana ta erdiko sudur konkoña bazuen ta...
- MAÑA. Ez zuen zure antz aundirik izango.
- TALO. (Atzeko atera juanaz). Kalera aterata ere, argitan ikusten egon zan. (Auñeratuaz). Eta, beñiro sartu zanian, ojuka craso zuen: «Aquí esa, aquí esa»...
- JO-JO. ¿Aquí esa?
- MAÑA. ¿Aquí esa? Ikusten zer lotsagabia...
- TALO. Nik, gaztelañez asko askorik ulertzen ez badet ere, antz eman nion emakumezkoren bati beregana juateko deitzen ziola.
- MAÑA. Ta zuri ondo iduritu.
- TALO. An zeudenak ere, nik bezela ulertu zuten.
- MAÑA. Zure antzekuak izango ziran.

- TALO. Emakumezkorik an zegona, Mai-Bixenta zan, eta prantzesak deitzen ziola esan genion. ¡Ez ordia juañ nai!
- MAÑA. Ez, noski; zuk baño buru geyago du-ta.
- TALO. Buru geyago... ez dakit; ile geyago beintzat bai.
- JO-JO. Eta zentzu geyagore bai.
- TALO. Gu, zer egin ezin asmatu genuela arkitzen gñan, eta zenbat eta nastutuagoak ikusten ginduen, orduan ta kañaxi aundia-goak egiten zituen: «Aquí esa, aquí esa».
- MAÑA. Ixildu aziko nuen nik an izan banitz.
- TALO. Zuk bai noski; senaía ixildu azitzen dezun bezela.
- JO-JO. Begira zak, gero.
- TALO. Azkenian, Moexto, Etxesaletxe'ko Moexto, Polikarpo ére-mentariyarengana juañ zan.
- JO-JO. (Oso asáre altxa, ta eskuira juanaz). Éfemienta ona bera, asto, kirten ori. Aitatu utsarekin kixkaltzen jartzen nak.
- TALO. Bai, bazekiau...
- JO-JO. Azkeneko tajutu zidan aizkorari ere altzairu edefík jañi zio-kan, eskalu, ergel alen órék. Sudur-zuluetañ sartuko niokan nik altzairu ura. ¡Mila deabru!
- TALO. Éfementari bezela txara dala bazekiau; baña musian eta prantzesez beste bat ez bezelakua dek ordia.
- JO-JO. Ezertan ere ez, arayoz jositako ume baldar, kaskal ori.
- TALO. Prantziyan ere egona dek-eta.
- JO-JO. Ez zikan ba lanian batere ikasi.
- TALO. Prantzesez eta musian, bai ordia.
- JO-JO. Zer ikasi biar zikan. Gauza izan biar ezer ikasteko.
- TALO. Órék prantzesez... ¡Fraskuelo'k baño geio zekik eta!
- JO-JO. Éfementak alperík galtzen bai, bazekik órék.
- TALO. (Mañaxi'ri). Árék esan zigun «Aquí esa» esan nai zuela: «¿No-rena da au?» ¡Edozein gauza! Esaten omen da: *A qui est ça?* (Joxe Joakin'i). *A qui est ça?* ¡Asma zak axkora, dek ori!
- JO-JO. Axkora izan balitz ez zikan asmatuko éfementari ergel órék. Neri axkora ondatu zidan bezela. ¡Mila deabru!
- TALO. Polikarpo'reñ bitartez alkar aita, onera etoñi ta Koxme be-regana eraman det. Koxme oso asáre zegon... (Mañaxi'renga-ñik). Onekin zerbait izana izango zan.
- MAÑA. Nerekiñ ez du ezer ere izan.
- TALO. Ez dakin. Nolanai dala ere ez zuen ezer entzun nai. Buñun-

tziagatik zenbat bear zuen galdetzen zion; baña, mutututa gelditzen zan. Azkenian, prantzesa begiyen aúetik botatziagatik... ¡oréngatik bakañik, e!, lau mila duro esan zion. ¡Lau mila duro! (Mañaxi ta Joxe Joakin, Talo'ri bi aldamenetan jar-tzen zaizkio).

- MAÑA. } ¡Lau mila duro!
Jo-Jo. }
- TALO. Lau mila duro.
- MAÑA. Buñuntzi batengatik.
- Jo-Jo. Badek dirua.
- TALO. Eta prantzesak itzetik artu ta ¡kaska!
- MAÑA. ¿Kaska?
- TALO. Kaska, bai, kaska.
- Jo-Jo. ¿Zer kaska, ordia?
- TALO. ¡Kaska! Buñuntzia lau mila duruan erosi.
- MAÑA. ¡Ene!...
- Jo-Jo. Ez, kaska; baña kaskaíreko edeña dek ori.
- TALO. Bai noski; ta bertan tratua erabaki, ta bertan lau mila du-ruak ordaindu.
- MAÑA. (Ezkerera juanaz abopian itzegiñaz). ¡Lau mila duro! ¡Lau mila duro!
- Jo-Jo. Gezuña zirurik.
- TALO. Egi-egiya dek ba.
- Jo-Jo. (Mañaxi'ri, beregana alderatuaz). ¿Baña zuk oni, egiyaren antz izpirik arkitzen al diozu?
- MAÑA. ¿Arkituko ez diyot ba? Egi-egiya dala txinixtu zenezake.
- Jo-Jo. ¿Zergatik ordia?
- MAÑA. ¿Zergatik izango da? Lau mila duro oyek onera etoñi biar dutelako.
- Jo-Jo. ¿Onera?
- MAÑA. Etxe onetara, bai.
- Jo-Jo. Ez da ori...
- MAÑA. ¿Ezet? Diru oyek laster ikusiko dituzu nere eskuetan.
- Jo-Jo. Baña...
- MAÑA. Nere giltzapian gelditu biar dute, bai.
- Jo-Jo. (Talo'ri). Baña... ¿zer zikan buñuntzi afeñk oñenbeste diru emateko?
- TALO. ¡A! Buñuntzi ura zañetan zañetakua dek.

- MAÑA. Bai, ba. Aurrekoen aurrekoak utzitakoa zala, Koxme'k berak esan zidan. Neri guziya esaten dit.
- TALO. Zuri, bai noski.
- MAÑA. Nik nai izan banu, buñuntzi ori neretzat izango zan; baña, ez; nik ere lau mila duruak nayago ditut.
- TALO. Esango nuke. Ez zaude tratalari txarra. ¡Giltxurina!
- MAÑA. ¡Lau mila duruak, lau mila duruak!
- JO-JO. Inondik inora nik ezin ulertu diat ba.
- TALO. Buñuntzi ofek jentilen garaikoa izan biar dik.
- JO-JO. ¿Zer jentil gero?
- MAÑA. Koxme'ren aurrekuak. Gure aurrekuak esan genezake. Koxme guria bezela bai degu.
- TALO. Ik ez dakik; baña emen, orain urte asko, baña asko, jentilak bizi itukan. Gizaseme, ikaragafizko aundiyak...
- MAÑA. Bai, ba; Koxme'ren aita bera ere, ate ortan ezin sartu zan alakua zan-ta.
- TALO. Ofek ez du zer-ikusirik. Bestelakorik ziran ayek. Gizaseme ayen oin bakoitza, pabriketako tximini luze oyetako bat baño aundiagoa zan. Beso bakoitza... beste tximini oyetako bat bezelakua. Urte asko igaro dituk ordutik onera, ta gu, kaxkartu egin gaituk, apurtu. Intentxiyua, bai .. ire emaztiak bezela. Mingañian indarra ere bai...
- MANA. ¿Erosariyo ori, luzia al da?
- TALO. Zure mingaña bezin luzia, ez. ¡Tipulaxina!
- MANA. ¡Astua!
- JO-JO. Zer esaten dekan begira zak gero.
- MANA. (Joxe Joakin'i). Ta zuk ere begiratu biar dezu.
- JO-JO. ¿Nik? ¿Mingain luze, beñere deitu al dizut, ba?
- MANA. ¡Ez genuke besterik biar! Baña, zure amoru oyekin edozer gauza esaten dezu. Koxme'rengatik nai aña zitalkeri bota dituzu, ta ortik etori dira emengo oztasunak, emendik alde egitiak...
- JO-JO. ¡Baña, nik Koxme'rik ikusi ere ez badet! Ta, gañera, zuk biali dezula zeofek esan didazu.
- MANA. ¿Nik, e? Gauza txar guziyak nik egiten ditut. Aixtiyan Xefaina'rekin zalapartaka ere ni izango nitzan.
- JO-JO. Ofek ez du zer ikusirik.

- MAÑA. Badu, bai. Utzi nazazu neri. Nik gauza antolatuko det; eta lau mila duro oyek nik gordeta ikusiko dituzu.
- JO-JO. (Zuk gordeta nik ikustia, ez da érez izango).
- MAÑA. Utzi nazazu neri.
- JO-JO. Bai, bai.
- TALO. Bada, jentilak gizaseme ikaragarizko aundiyak ziran; eta indar batzuek bazituzten ezin esan alakoak. Etxia baño aundiagoko arkaitz puskak atzapařetan artu ta kanikak balira bezela, beren ayekin jostatzen ziran.
- MAÑA. Jostalu egokiyak.
- TALO. Izan ere, ayen atzapar bakoitza pelota-jokuko pareta baño aundiagoa zan-ta.
- JO-JO. Orduan baxo-erdiyari eltzeko gaizki ibiliko itukan.
- TALO. ¿Baxo erdiya ayek? ¡Bai zera! Upela oso-osorik atzapařetan artu ta ¡zanga, zanga! ustu arte. ¡A! Garai artan jayo biar nuen nik. ¡Garai artan!
- MAÑA. Zanga zanga edefik egingo zenuen zuk.
- JO-JO. Zanga obeto egingo zuen onek bai, edana ordaindu (pagatu) baño.
- TALO. ¿Orduan ordaindu? Érex. ¡Aberats puřukatuak itukan ta!
- MAÑA. ¿Nola ez ziran izango, lau mila duroko buřuntziak zituztenak?
- TALO. Ayen aberastasunak zenbateraņokoak ziran, ametsetan asi ta ere ez genioke antzik emango. Eta guziyak emen utzi zituzten.
- MAÑA. ¿Emen?
- TALO. Gure oņetan. Be guziyak aberastasunez betiak daukazkigu. Emen azpiyan zer dagon guk ez dakigu.
- JO-JO. ¿Emen azpiyan? Pipiya ugari.
- TALO. Berago, ordia. Aberastasun oyek non dauden asmatuko baltiz... Ta egunen batian azaldu biar dute. Nai ta naiez agertuko dira. Ta orduan... ¡A! guziyak aberats puřukatuak izango gera.
- JO-JO. Guziyak aberats egiten diran egunian, guziyak txiro.
- TALO. Orduan ez du iņork lanik egingo. Lan egiten duena, presiliyora.
- MAÑA. Lanik egiten ez bada, ia nondik sortuko diran aza ta babařun ta...

- TALO. ¿Aza ta babañunak zertarako dituzu, sakelian naiko diru izan ezkeror?
- MAÑA. Dirua jango dezu zuk.
- JO-JO. Diruakin beteko dek ik sakela.
- TALA. Oñetan balego... Okerena da ez dirala arkitzen. Or, Aitzgoriñ ta jentil-añiyak arkitu dituzte, bai; bañan oyeke ere kaxkarak dira. Beren azpiyan exur batzuek azaldu dira... kondarak, apurak, utsa. Tarteka, tarteka, zerbait azaltzen dala, orain buñuntziya bezela, ta besterik ezer ez.
- JO-JO. ¿Ta alako gizon aundiyak zertarako zitekan oñelako buñuntzi txikiya?
- TALO. Ez zekiagu ba. Ortzak garbitzeko edo oñelako zerbait izango ukan noski.

VI

LENGUAK eta KOXME

- KOX. (Atzeko atean azalduaz). Emen naiz ni beñiro.
- MAÑA. Gure lau mila duruak emen ditugu.
- TALO. (Koxme'rengana juan eta maruzkatuaz). Ona emen buñuntzalia edo buñuntzi zalia.
- KOX. Zauke geldirik, gizona.
- MAÑA. (Joxe Joakin'i). Eta orain, utzi neri. Nik antolatuko det. Utzi neri.
- JO-JO. Bai emakumia, bai.
- TALO. I aiz, i; bateko ezpata ez, baña, bateko buñuntziya.
- KOX. Itzegin zazu mingañarekin, ta ez atzapañakin.
- TALO. Nik guziyakin itzegiten diat; baita alpraketen lokañiyakin ere.
- KOX. (Mañaxi'rengana juanaz). Mañaxi: zuri gauza bat esatera etoñi naiz.
- MAÑA. Nai dezun guziya esan zenezake.
- KOX. Neri begiratuta buñuntzi bat ikusten zenidalako kezka zenuen. Ez didazu orain geyago ikusiko. Ez det buñuntzirik.
- MAÑA. Saldu dezula badakigu.
- JO-JO. Ta ondo saldu dekala ere bai.
- TALO. Nik guzi-guziya esan ziuatet.

- JO-JO. Onek, lau mila duruan esan ziuk.
- MAÑA. Lau mila duruan esan digu.
- TALO. Bai, ba... larogei mila duruan.
- MAÑA. }
- JO-JO. } ¿E?
- KOX. }
- TALO. Ez, ez; lau mila duruan.
- KOX. Egiya; lau mila duruan saldu det.
- JO-JO. Ostikada edera dek.
- MAÑA. Beñi orek asko poztu gaitu. Au txoratuta gelditu da. (Joxe Joakin'gatik. Oni poztutzeko keñu egiten dio).
- JO-JO. Bai; esateko era batian...
- MAÑA. Esateko era guzietan... Eta Xefeina... ¡A! Xefeina bere onetatik ateria dago... Ta etxeko guztiyak, etxeko guztiyak, pozez bete gera... ta... badakizu... lengo itzian bazaude...
- KOX. Azkeneko itzian irauten det.
- MAÑA. Orduan ez dago geyago zer esanik (Eskuiko lenengo atian deituaz) ¡Xefeina!
- KOX. ¿E?
- MAÑA. (Koxme'ri). Orain etoriko da, ta biyen ezkontza beriala antolatuko degu.
- KOX. Ori ez da ordia gure azkeneko itza.
- MAÑA. ¿Zer?
- JO-JO. ¿Nola?
- TALO. Ara, ara...
- KOX. Gure azkeneko itza izan da: bakoitza bere malan. Eta bat jexten danean, bere asmoetan ere jexxi egin bear du...
- MAÑA. ¿Zer esan nai dezu?
- JO-JO. ¡Mila deabru!
- KOX. Eta igotzen danian, igo.
- MAÑA. Baña ¿zer naspil dira abek?
- JO-JO. ¿Zer dituk katramil oyek?
- KOX. Ni orain igo egin naiz, eta zuen alaba bian gelditu da. Beaz beragoko senargai bat bilatu biar du.
- MAÑA. Lotsagabia ez besterena.
- JO-JO. Arayoz jositako petrala ¿zer gerala uste dek?
- KOX. Nik goragoko andregaya bilatu biar det. Eta begiz jua daukat. Sendagilearen alaba eskatzera nua.

- TALO. ¡Edeía dek!
- MAÑA. ¿Enplasto onekin ateratzen al zera orain?
- KOX. Enplasto au zeórek egin dezuna da.
- Jo-Jo. Baña, arayoz jositako ume zirtzila, ¿len esantako guziya, lengo eskeñiak, lengo agintzak alpeñikakoak dirala uste al dek?
- KOX. Alper-alpeñikakoak. Malaz aldatu gera: beaz itzaz eta eskeñiaz ere aldatu egin bear degu.
- TALO. ¡Edeía dek!
- MAÑA. Kaiku, maltzura. Zu aldatuko zinduket nik oraintxe.
- Jo-Jo. ¡Mila deabru! ¿Baña ik ezkontza zer dala uste dek?
- KOX. Emazteak esango dizu: «Anima salbo, txerí-tratu jator-jatoría».
- Jo-Jo. ¡Puñukatuko at!
- MAÑA. ¡Petrál gaiztua!
- KOX. Ori esatera etorí naiz, ta oñenbesterekin banua. (Koxme atzetik juaten da. Joxe Joakin ta Mañaxi oso asañetzen dira. Talo, itotzeko zoriyan algaraka, atzeko atian gelditzen da).
- Jo-Jo. Atzapañetan apurtuko nuke oraintxe.
- MAÑA. Azkazalak sartuko nizkioke.
- TALO. (Atzean algaraka). Oñek bai sartu dizutela... ¡buñuntziya!
- Jo-Jo. (Alki batekin jotzera egiñaz). ¡Txirtxilatuko at!
- MAÑA. ¡Talo, ez besteren talo! ¡Astua!
- TALO. ¡Kaska!

EZKUTAZAPIA JEXTEN DA.



IZARA

Antzerki sala



Colección de comedias

AGERTUAK

- 1.^a : *Jauregi-erótako astoa*. Alfonso M.^a Zabala'k asmatutako bakañizketa. (N.º 1. Monólogo original de A. M. de Zabala). 0,50
- 2.^a : *Uruti-izketa*. A. M. Zabala'k idatzitako antzerkia. Atal batekoa, ta gizonezkoak bakañik egitekoa. (N.º 2. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. M. Zabala). 1,00
- 3.^a : *Melitona'ren bi senaia*. A. M. Zabala'k idatzitako antzerkia. Atal batekoa ta gizonezkoentzat. (N.º 3. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. M. de Zabala). 1,00
- 4.^a : *Mendibe'taren lañiyak*. A. Laraitz'en antzerkia. Atal batekoa, ta gizonezkoentzat. (N.º 4. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. de Larraitz). 1,00
- 5.^a : *¡Utzi bearko!* Deñoka'tar Goserio'k euskeratutako antzerkia. Gizonezkoentzat. Atal batean. (N.º 5. Comedia en un acto, para hombres, traducida por Goserio de Deñoka). 1,00
- 6.^a : *Neskame beria*. Emakumezkoentzat bakañik, atal bateko antzerkia. Deñoka'tar Goserio'k euskeratua. (N.º 6. Comedia en un acto para mujeres solas, adaptada por G. de Deñoka). 1,00
- 7.^a : *Gizon bikañak*. Gizonezkoentzat, atal batean. Deñoka'tar Goserio'k euskeratua. (Comedia para hombres, en un acto). 1,00
- 8.^a : *Tripa-Zoñia*. Gizonezkoentzat, atal batean, Toribio Larrea'k eratutako antzerkia. (N.º 8. Comedia en un acto para hombres, por Toribio de Larrea). 1,50
- 9.^a : *Moñoi jatoña*. A. Laraitz'en antzerkia. Atal batekoa, ta gizonezkoentzat. (N.º 9. Comedia en un acto, para hombres solos, por A. de Laraitz). 1,00
- 10 : *Gau-ostatua*. Iruretagoyena'tar J.'ren antzerkia. Atal batekoa, ta gizonezkoentzat. (N.º 10. Drama en un acto, para hombres solos, por J. de Iruretagoyena). 1,50

- 11 : *Gixatxara*. Manuel Rekondo'k egindako antzerkia. Atal batekoa ta emakumezkoentzat. (Sainete en un acto, para mujeres solas, por M. Recondo)..... 1,00
- 12 : *Perira*. Manuel Rekondo'k egindako bakañizketa. (N.º 12. Monólogo, por M. Recondo)..... 1,00
- 13 : *Trapu-biltzalea*. Manuel Rekondo'k emakumientzat bakañizketa egindako antzerkia. (N.º 13. Comedia para mujeres solas, por M. Recondo) 1,00
- 14 : *Urdinburu'ko Bitor*. Etxeberria-Tolosa'tar J. P.'k egindako bakañizketa. (N.º 14. Monólogo, por J. F. de Etxeberria-Tolosa)..... 0,50
- 15 : *Ezer ez ta festa*. Toribio Alzaga'k antolatutako jostirudia. (N.º 15. Juguete de M. Soroa, arreglado por Toribio Alzaga) 1,50
- 16 : *Txibiribiri*. Toribio Alzaga'k asmatutako antzerki iritsua. (N.º 16. Comedia en un acto, por Toribio Alzaga)..... 1,50
- 17 : *Bernaiño'ren lañiyak*. Toribio Alzaga'k asmatutako antzerki iritsua. (N.º 17. Comedia en un acto, por Toribio Alzaga)..... 1,50
- 18 : *Amantxi*. Toribio Alzaga'k asmatutako bi ataldun antzerkia. (N.º 18. Comedia en dos actos, por Toribio Alzaga) 2,00
- 19 : *Periyaren zalapartak*. Alfonso Zabala'k asmatutako antzerki iritsua. (N.º 19. Sainete en un acto, por Alfonso Zabala)..... 1,50
- 20 : *Biozberak*. Toribio Alzaga'k asmatutako ekitaldi bakañeko iri-antzerkia. (N.º 20. Juguete cómico en un acto, por Toribio Alzaga)..... 2,00
- 21 : *Atso poxpoliña*. Iruretagoyena'tar J.'k egindako bakañizketa. (N.º 21. Monólogo, por J. Iruretagoyena)..... 1,00
- 22 : *Txilibitu*. Arozena'tar Andoni'k asmatutako mutil-bakañizketa. (N.º 22. Monólogo para muchacho, por Antonio de Arocena)..... 1,00

Antzerki oek salgai daude:

Donostia'n: Leizaola'ren idaztitegian (Garibai, 28) eta "Librería Moderna, deritzaionean (Fuenterrabia, 2).

Bilbao'n: Emeterio Verdes'enean (Correo, 9).